


NAPARRA-REN DESAGERTZEA

# NBEtik dator ukendua, 34 urteren ondoren

Komando Autonomoetako militante Jose Miguel Etxeberria Alvarez iruindarra 1980an desagertu zen Ziburun (Lapurdi). BVE talde parapolizial espainiarrak hartu zuen bere gain bahiketa eta hilketa. Harrez gero familiak dozenaka ate jo ditu eta, azkenean, NBEk onartu dio hain garrantzitsua zena: Naparra indarrez desagerrarazi zutela, gizateriaren aurkako krimena dela, delituak ez duela preskribatzen eta auzia argitu arte ikertzen jarraitu behar dela.

| XABIER LETONA |



ETXEBERRIAREN SENIDEEK UTZIA

*Naparra-ren argazki ezaguna, Ipar Euskal Herrian errefuxiatua zegoela; 22 urte zituela desagertu zen Ziburun.*

2014KO URRIAREN 19. Eneko Etxeberria Alvarez Genevan da, NBEko egoitzaren aurrean, anaiaren desagertzearen auzian egin duen eginkizun juridiko esanguratsuenaren atarian. 2013ko irailean bildu zen Gasteizen Ariel Dulitzkyrekin, NBEko Indarrez edo Nahitaez Desagertutakoen Lan Taldeko kidearekin. Espainian zen lan bisi-

taldian eta berak anaiaren kasua kontatu zion. Baietz, indarrez eragindako desagertze baten zantzu guztiak dituela eta aurkezteko salaketa NBEko euren lan taldean.

2014ko martxoan, Egiari Zor elkartearen laguntzarekin salaketa aurkeztu zuen eta orain lan taldearen aurrean aurkeztu behar du auzia. Badoa barrura, irmo, konta

beharrekoak askatzeko irrikaz. Baina sarreran ez dute bere berririk. Telefonoa astindu, Egiari Zor elkartera deitu, hauek NBEko ordezkari... Azkenean sartzen uzteko esan die atarikoei, baduelako aretoaren erreferentzia eta hala ikusiko dutela hitzordua egiazkoa dela. Esan eta egin: bai, zain du lan taldea. Dena konponduta.

## Celes Alvarez: «Agertu arte guk bila jarraituko dugu»

14 URTE iragan dira Etxeberria Alvarez familiarekin bildu nintzenetik, seme eta anaiaren desagertuaren 20. urteurrenean. Aita-ama eta semea bildu ginen orduan. Gaurkoan Patxi falta da, aita, 2006an hil zen semearen gorpua berreskuratzearen ametsa bete gabe, haren bila dena eman ondoren. Celes Alvarez eta Eneko Etxeberriaren testigantza jaso dugu, Jose Miguel Etxeberria seme eta anaiaren desagertuaren 34 urtera.

**Nola eboluzionatzen du minak denbora horretan?**

**Celes Alvarez:** Ezin da azaldu, halakorik pasatzen duenak bakarrik daki zer den hori. Askok sufritu du familia osoak eta jarraitzen du sufritzen. Non dagoen ez jakitea oso gogorra da.

**Halako berriek on egiten dizuete edo zaurian berriz arakatzeko sufrendua areagotzen du?**

**C. A.:** Honek behintzat on egiten digu, zerbait berria agertzen den bakoitzean, desagertuta argitzeko balio dezakeelako eta horrekin gure nahietara gerturatu garelako: semearen gorpua lortzea.

**Eneko Etxeberria:** 34 urte desagertu zela eta jaikitzen zaren egunetako bakoitzean anaia hor duzu [atzamarra jartzen du buruan], eta beti burua dantzan, ea erbia nondik altxatuko den esperoan, datu berri bat, albisteen bat... Edo kasua ezagutzera emateko eta ahaztu ez dadin... Beti hor, buruan. Desagertu bat da norbaitekin aurka egin daitekeen biolentzia mailarik handiena, eta NBEk ere hala aitortzen du.

**NBEren honek zer suposatu du zuentzat?**

**C. A.:** Poz handia. Haiei ere esan nien, ea orain behin goz lortzen dugun urratsak ematea.

**E. E.:** Gure lehen helburua gorpua eskuratzea da, eta ondoren erantzukizunak argitzea. "Non duzue? Itzuli", hori da gure leloa. Norbaitek bahitu zuelako, eta nonbait ehortzi zutelako.

**Eta NBEren onarpen honen ondoren, zer eskatzen die zehazki familiak Espainia eta Frantziari?**

**C.A.** Esan diezagutela non dagoen, norbaitek jakin behar du eta.

**E.E.** Ikerketa berriz zabaltea. Azkenean, NBEk orain anaiari buruzko desagertu onartzea bere garaian Auzitegi Nazionalak esandakoarekin kontraesanean dago: NBEk dio indarrez eragindako desagertu izan zela eta Auzitegi Nazionalen artxibatu egin zuten, desagertu bera ere zalantzan jarritz.

**Bitartean, gorpua berreskuratzea ezin atsedean hartu.**

**C.A.** Hala da. Agertu arte guk bila jarraituko dugu.



Celes Alvarez, semearen argazkiarekin, NBErako egindako bidean.

**E.E.** Beste garai bat bizi dugu eta hemen gertatu denaz kontakizun bat egin behar omen da. Beste toki batzuetan egiaren batzordeak osatu dira gertatu den guztia argitzeko, ea hemen ere halakorik egiten den. Denbora da arazoa, batez ere gure amaren kasuan.

**Egiaz hainbeste hitz egiten denean, Naparraren kasuan ere egon ziren hipotesi desberdinak, BVEz gain, orduko beste talde armaturen bat ere izan zitekeela aipatu zen. Nola ikusten dituzue hipotesiok gaur egun?**

**E.E.** BVEren egiletzarena da hipotesi nagusia. Talde armaturen hipotesian, behar adinako ikerketa egin genuen eta hari hori baztertu. Intoxikazio asko egiten da halako kasuetan eta anaiaren kasuan ere saiatu ziren horretan.

**Noizbait zuzendu al zaizkizue instituzioetatik zuen auziaz interesa agertuz?**

**E.E.** Eusko Jaurlaritza bai eta ama eta biok izan ginen haren ordezkariekin auziaren berri emanez. Nafarroako Gobernu edo Iruñeko udalaren aldetik inoiz ez zaigu ezer adierazi. Hemen alde guztietatik egin dira giza eskubideen bortxaketak eta askok sufritu izan dugu, baina mina ez da inoren monopolioa, min guztiak aitortu behar dira, ez alde batekoak bakarrik.

**C. A.** Elizatik ere inoiz ez zaigu inor zuzendu. Ahaztuak izan gara, eta sarri mespretxatuak ere bai. Lagun eta familian ere harreman apurketa handiak izan nituen. Oso mingarria eta triste da.

**E.E.** Aita-ama beti kexu agertu izan dira horrekin. Behe mailako apaiz batzuen sostengua izan dugu, baina Elizaren goi mailako esparruetatik ezertxo ere ez. Hala ere, urte hauek guztietan beste jende askoren sostengua izan dugu eta haiei guztiei gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu.

Ekin dio kontaktari, areto erral-  
doiaren erdian eta epaimahaikide,  
itzultzaile eta bestelako teknikarien  
artean 20 lagunez inguratua. 20  
minutuz auziaren muina laburtu die  
aurrean duen desagertuen lan talde-  
ko boskoteari. Azaldu die BVEen  
hipotesian sinesten duela familiak.  
Beste hogeita minutuz haien galdera  
zorrotzak erantzun ditu, “epaitua  
nik ematen nuen”, dio irribarrez  
Enekok. Epaimahaiak ere baietz  
dio, badirela zantzuak *Naparra* inda-  
rrez eragindako desagertutzat jotze-  
ko, Espainia eta Frantziako Gober-  
nuari auzia iker dezaten gomendioa  
luzatuko dietela. Desagertzea gizate-  
riaren aurkako krimena dela eta argi-  
tu arte auzia ez dela preskribatzen.

Sekulako lorpena da familiaren-  
tzat, azkenean estamentu ofizial  
batek Euskal Herrian Pernandoren  
egia dena onartu die, anaia indarrez  
desagerrarazi zutela. Nork eta  
NBEk. Bazegoen aldea Estatu  
Espainiarrarekin. Auzitegi Nazio-  
naleko Ismael Moreno epaileak  
2004an artxibatu zuen auzia eta,  
gainera, ez txantxetako ondorioe-  
kin, haren esanetan, argitara ziren  
datuekin ezin baitzen esan Jose

**Sekulako lorpena da  
familiarentzat,  
azkenean estamentu  
ofizial batek Euskal  
Herrian Pernandoren  
egia dena onartu die,  
anaia indarrez  
desagerrarazi zutela**



ETXEBERRIAREN SENIDEK UTZIA

**Etxeberria Alvarez familia Sanferminetan: Patxi eta Celes, Jose Miguelek Eneko du eskutik eta Camino arreba, seme-alabetatik nagusia.**

Miguel Etxeberria delitu ekintza  
baten ondorioz desagertu zenik,  
“are gutxiago delitu terrorista baten  
ondorioz”. Urrutiago ere joan zen,  
itxiera autoan “balizko desager-  
tzeaz” hitz egiten zuen, noiz eta  
desagertzetik 23 urtera.

Familiaren abokatu Iñigo Iruinek  
eskatu zuen Manuel Ballesteros, José  
Antonio Saenz de Santamaría eta  
segurtasun indarretako edo mertze-  
nario ezagunetako –Gilles Perret,  
esaterako– beste hainbat pertsona  
deklaratzera joatea, baina epaileak  
eskaera ukatu zion, hauek deitzeko  
inongo zantzurik ikusten ez zuelako.  
Familiak helegitea jarri zuen, eta hila-  
bete batzuk geroago Angela Murillo  
epaile ezagunak itxiera berretsi zuen.  
Frantzia azkarrago ibili zen eta  
1982an artxibatu zuen auzia.

### Estatuen borontate eza

Egiari Zor elkarteko Iratxe Urizar  
abokatuak bideratu zuen auzia  
NBEren aurrean eta emaitza lorpen  
handitzat jotzen du. Desagertuen  
lan talde honek Haga edo Stras-  
burgoko Auzitegiek izan dezaketen  
aginte mailarik ez duela gororaraz-  
ten du, baina aitortza bera oso  
garrantzitsua dela azpimarratzen  
du: “Espainia eta Frantzia ez ditu  
ezertara behartzen, baina onarpen  
hau errieta moduko bat da, gogora-  
razten baitie giza eskubideen espa-  
rruko hainbat itun sinatu dituztela  
eta ez direla egiten ari itun horiek  
eskatzen dietena”. Aurrera begirako  
zailtasuna? “Asko, auziak begi bista-  
ko osagai gutxi ditu eta duela asko  
gertatu zen”. Eta horri gehitu behar  
zaio Espainiako eta Frantziako



Geroz eta gehiago gara **indarkeria sexistari aurre  
egiten** diogun emakumeak.  
**Eraso sexistarik ez!**

 **Hernaniko  
Udala**


 **berdintasan  
kontsilua**

## Auziaren kronologia

- **1980ko ekainaren 11.** Ziburun finkatutako hitzordu baten testuinguruan desagertu zen Jose Miguel Etxeberria Alvarez, *Naparra* edo *Bakunin*. 19an bere autoa topatu zuten Ziburu inguruan.
- **1980ko ekainaren 22a.** Batallón Vasco-Español (BVE) talde parapolizial espainiarrak *Deiara* egindako telefono deiaren bidez *Naparraren* bahiketa bere gain hartu zuen.
- **1980ko uztailaren 4a.** *Deiari* eginiko deian, *Naparra* ekainaren 30ean hil zutela eta Donibane Lohizuneko Txantakon lurperatua zegoela jakinarazi zuen BVEk. Miaketa ugari egin ziren emaitzarik gabe.
- **1980ko uztailaren 7a.** Agiri baten bidez Komando Autonomoen talde batek zalantzan jarri zuen *Naparraren* bahiketa BVEk egin izana. Egindako moduagatik, BVEren errebindikazioa zalantzan jarri zuen eta desagertzea beste euskal talde armaturen batek bideratu zuela iradoki.
- **1980ko uztailaren 25a.** BVEren izenean hitz egiten zuen pertsona baten esanetan, uztailaren 12an hiru gendarmek gorpua Akize (Akintania) ingurura eramán zuten eta han ehortzi edo desagerrarazi. Abuztuaren 3an deia eta informazioa errepikatu zen.
- **1982.** Baionako Auzitegiak desagerpena ikertzen zuen auzia artxibatu zuen.
- **1985eko ekaina.** *Diario 16*eko Rafael Cid eta José Diez Herrera kazetariak argitaratu zuen *Naparra* Perret Claneko mertzenarioek hil zutela.
- **1999ko iraila.** Familiak desagerpena salatu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalean.
- **2004ko martxoaren 31.** Ismael Moreno epaileak auzia artxibatu zuen eta bere ondorioetan aipatu zuen ez zegoela datu objektiborik *Naparra* indarrez desagerrarazi zutela esateko.
- **2013ko iraila.** NBEko Indarrez edo Nahitaez Desagertutakoen Lan Taldeko Jazminka Dzumhur eta Ariel Dulitzkyri auzia azaldu zien familiak.
- **2014ko martxoa.** Egiari Zor elkartearen laguntzarekin, familiak salaketa jarri zuen pertsona desagertuei buruzko NBEko lan taldearen aurrean.
- **2014ko urriaren 19a.** *Naparraren* anaia Eneko Etxeberria Genevan izan zen NBEko egoitzan desagertuen lan taldearen aurrean auziaren testigantza emanez. Lan taldearen aburuz, nahiko datu dago NBE kasua indarrez gertatutako desagerpen gisa onartzeko.



Patxi eta Celes, *Naparra*-ren gurasoak, Ziburun autoa agertu zen tokian.



Eneko Etxeberria *Naparraren* anaia, iragan urrian Genevan.

governuek ikerketarako erakutsi duten jarrera eskasa. Bestelako kasuez Espainiak NBERi emandako erantzunak ere txarrak izan dira.

Eneko anaia argi dauka, ordea, familiak bila jarraituko du eta ez bada bera, agian bere bilobaren batek topatuko ditu hezurak, orain frankismoak desagerrarazitakoekin gertatzen ari den gisan.

### **Pertur, Popo, *Naparra*... eta Tomás Hernández.**

Eduardo Moreno ETA Politico-Militarreko buruzagia izan zen eta Ipar Euskal Herrian errefuxiatua zegoela desagertu zen 1976an. Hainbat hipotesi egon dira bere desagerpenaz –tarteen ETA p-mko talde ‘bereziak’ izan zirela–, baina indar gehien duen hipotesiak garai-

ko talde parapolizialen egiletza azpimarratzen du, eta Auzitegi Nazionalean irekitako ikerketan ere hori lehenesten da.

Jean-Luis Larre, *Popo*, Iparretarrak (IK) talde armatuko kidea zen eta 1983ko abuztuaren 7an Landetako Leon herrian Frantziako poliziarekin izandako tiroketa baten ostean desagertu zen. IKren ustez, poliziak atxilotu, hil eta desagerrarazi zuen.

*Pertur*, *Popo* eta *Naparrarekin* batera, Egiari Zor elkarteak Francoren heriotzaren ondorengo desagertze politikoen kasuetan aipatzen du Tomás Hernández, Zaragozan jaioa eta 36ko Gerraren ondoren errefuxiatua. Hendaian bizi eta 1979an desagertu zen. Iñaki Egaña historialariak *Gara*-n (2013-09-28) azaldutakoaren arabera, *El País*-ek eta *Enbata* aldizkariak bere garaian azaldu zuten espainiar polizia ohi batek hildako Peru Larrañaga errefuxiatuaren hilketaren lekuko izan zela, hilketak horrek zerikusirik duela iradokiz.

Desagertzea. “Gerta litekeen txarrena”, dio Eneko Etxeberriak. “Bizi izan duenak bakarrik daki zer den hori”, gaineratzen du Celesek, *Naparraren* amak. Biktimak zeru eta lur hartzen dituen garaian, biktimekiko tratamendua zein desberdina izan den erakusten du *Naparraren* desagertzeak. Biktimek bila jarraitzen dute: justizia, egia eta erreparazioa. Izango al da orekarik ukenduen orduan. ■

